



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

:—:	IX Urtea	1927'ko Epaila	99 Zenbakia	:—:
-----	----------	----------------	-------------	-----

¡Agur Maria!



UXEN da zeru goi goyan entzuten dan ots leun eta geldi-geldiya, goizeko aize otzaren xuru muña bezelako otsa... Gure Jangoikoa begira aldi bat ematen dio munduari, Ama bat aukeratzeko... Zein izango da autatua?... Jangoikoaren aotik ateratzen da itz bat. Sonu geldi geldi bat bezelaxe entzuten da.... ¡Maria!....

Aingeruak ariturik aurpegiyak estaltzen dituzte beren egal ederekin.... ¡Mirian! beriz ere entzuten da.... eta zabaltzen da zeru goi goya....

¡Au izango da nere Ama!... eta ¡Jangoikoa gizon egiten da!... Aingeru baten izena ere entzuten da... ¡Gabriel! Eta egaka egaka eldu da Gabriel Aingerua bere Jangoikoaren aurera....

«Agindutako ordua etofi da, esaten dio; zoaz nere ordezkari luñean ainbeste maite duten «Aingeru» ederearengana, eta esan zaitzazu zein dan Jangoikoaren borondatia.... Ez bildurtu.... Bakar ba-

rik Mirian deitzen dan «egal-gabeko Aingerutxoari» agertu nere asmoa»...

Eta egaka-egaka jetxitzen da Gabriel luñera eta artzen du Jerusalem aldeko bidia.

Jangoikoak ainbeste aldiz agindu duena, betetzera dijoa gaurko egunian....



“Agur, Maria,, diotsa Gabriel aingeruak
Ama Birjiñari.

¡Gizon egin nai!....

¡Gure jantziya artu nai!... ¡Gure anai izan nai!... bere buruz jakiteko nolakoa dan gure bizitzanegargaria.. Eta ori ¡gure Jangoikoaren amets bakarra!... ¡Maite al gaitu bada gure Jangoikoak?....

Egiya ote da bada Jangoikoak gizonegin nai duela? Entzun bada «zeruko egaldunak» zer esaten dion «egalak bakarik falta zaizkion Aingerutxoari»...

¡Agur! auspezturik esaten dio: ¡Agur Maria!... Zorionekoa!... ¡Jangoikoaren mesedez bete!... ¡Jangoikoaren argitasunaz apaindua!... ¡Garbita-

sunaz txukundua!... ¡Andre guztien artian bakarik autatua!... ¡Agur!... Zeruko Jangoikoak bidaltzen nau zugana...

Bañan «luñeko Aingerutxo» lotsatu egiten da... bildurtzen da, eta asten da bere baiten pensatzen, zer esan nai ote duten, entzuten dituen itzak... «Jangoikoaren edertasunaz bete»... «Zorionekoa andre guztien artean»...

Zeruko aingeruak ezagutu du «luñeko aingerutxo» lotsatu dala, eta esaten dio: Jangoikoaren aurian arkitu dezu ongi-ikuste eta ongi-maitea.... Zure erayetan gizon egingo da bere Semea, eta zure sabeletik sortuko dan Aurtxoa izango da Jesus... ¡Jangoikoaren

Semea! Bere Aitak emango dio Dabiden jar-alkia, eta sekulako izango da bere mendea...

Itz auek entzun ta «Israelko loretxo politena» oraindik geyago nastutzen da: eta esaten dio «zeruko aingeruari»: «Bañan ori nola diteke? Ni, gizonik ez artzeko itza, Jangoikoari emanik bai nago?.. Orduan «aingeru egaldunak» erantzuten dio: «Jangoiko ber-bera etoriko da, eta gizon egingo da zure garbitasunak kalterik izan gabe... Eta zugandik sortuko dana, izango da Jangoikoaren Semea».


Orduan «luřeko aingerutxoak», goizeko intzakin loretxoak burua makurtzen duten bezala, bere biotzaren gañera burua makurtuz, esaten du: «Ona nun nagon! ¡Ona Jangoikoaren mirabetxoa!.. Egin bedi nere gain, esan dezun bezelaxe».

Eta «aingeru egalduna» zeru aldera dijoan bitartian, Jangoikoaren Semea, lañoiz inguraturik bezala, eldu da luřera gizon egitera.....

«Luřeko aingerutxoak» eskeintza egiten dio bere Jangoikoari esanaz: «Nere Jangoikoa: zurea da nere biotza, oso osoa; zurea nere gogoa, oso osoa; nere zentzu, oso osoa; nere izate, oso osoa.. Zurea bakar bakarrik. Jauna ¡Ona! ¡Zure mirabetxoa!»

Jangoikoak betiko argiaz estaltzen du bere Amaren anima.... Eta zeru goyan entzuten da itz gozo bat.... Jangoikoaren Amaren izena.... Eta «aingeru egaldunak» belauniko jañirik, lur aldera begiratzen dutela, geldi geldi kantatzen dute... ¡Agur!... ¡Agur Maria!...

Arayoꝝ'ko Artzaña. O. M. Cap.





Seigaren eta Bederatzigaren agindua

Si quis autem templum Dei violaverit, disperdet illum Deus. Templum enim Dei sanctum est, quod estis vos. (I Cor, III-17)

Iñork Jaungoikoaren jauretzea zikinduko ba-lu, Jaungoikoak ondutuko luke. Jauretzea santua baita, ta ori zuek zerate.

(Jaraipena)

4.^a Ikustez, begiratzez, irakurtzez ere galtzen da garbitasuna. Begiagatik galtzeko daukagun afiskua etzezakigun Jaungoikoak obeki adirazi itz auetaz baño: «Begia baño ezer gaiztogorik egin izan al da?» Jesus'ek esaten digu befiz: Emakumeari ori nai duela begitzen dionak, bere biotzean loikerizko pekatua egin duela (Matth. V-28). Argatik deitu zituan Bernardo Santuak begiak, biotzeko garbitasunaren lapufak. Bi lapur oiei kontu aundia artu bear zaie ba, ez gaitzaten ondatu.

Begiakin pekatu egiten da, beafik gabe, eta atsegin artuz norbait itxura txafean edo zerbait itxura txafekoa begitzen ba-da. Alakorik sumatzean begiak baztatu ezkeror ezta pekaturik.

Berdin-berdin pekatu egiten da gauza lizun, itsusi. edo lotsagafiak beafik gabe irakurtzen (leitzen) ba dira.

5.^a Egitez edo jostaketa lizun edo itsusiaz ere austen da Agindu au; eta ori naiz bere buruarekin izan edo besterekin. Jaungoikoaren etxe dira gure gorputzak, len Pablo Apostolu Santuarekin esan degunaz; eta elizak, lotsa ta begiramendua eskatzen ba-du gugandik, baita gure gorputzak ere. Aingerua lotsatuko lukean guziak kristaua ere lotsatu bear du, esan du Piaggio'k.

Garbitasuna galtzea zein gaiztakeri aundia dan.

Aipatu ditugun era guzi oietatik edozeñetaz galduko balitz ere garbitasuna, beti da izugarizko galtzea ta gaiztakeria.

Nola-nai dala, lorea ustelkeri biurtzen du; aingerua, deabru; zeruko edertasuna, inpernukoen beztasun; eta Jaungoikoaren aupa etsaiaren sokalarteko edo menpeko lotua.

Pablo Apostolu santuak gatzigatzen zien Korinto'afai, ez irudi izateko ezkonduen pekatua bakañik dala aundia, baizik beste edozeñen lizunkeri (aipatzea lotsak debekatzen dizkigunak) zeruko efegetzatik kanpora utziko dituztela beroien egileak (I Cor. VI-9-10). Efeso'afai gauza bera adirazten die, gatzigatuz, etsirik bizitzeko nola-nai dala, gaiztakeri onen kutsua edozein

gixez duenik, ez dala Jaungoikoaren eta Jesukristoren efegetzan sartuko (Ephes. V-5).

Elizak gaiztakeri au jainkoizunak edo jainko gezufezkoak adoratzan zituzten aienaren antzekotzat artzen zuan lenengo Elizaren egunetan eta aiei bezalaxeko *penitentzia* ematen zien gaiztakeri ontan erortzen zirenai. Egitezko pekatuan erortzen zana, aiek bezala Elizatik baztartua gelditzen zan. Zazpi urteko penitentzi gogofaz gañera etziteken elizan sartu ta etzezaken Jauna-artu iltzean besterik, Basilio Santuaren Kanonetan ikusi ditekenez.

Gaiztakeri oni emanik bizi danak egiaz Jainkotzat artzen du lizunkeria. Griña lotsagafi ofen eskuetan jartzen ditu askotan bere ondasunak, osasuna, biziera paketsua, bere izen ona, bere biziera osoa; ta orixe da zer-bait Jaungoikotzat artzea.

Agustin santuak esaten digu: lkareriak artzen zaitu gogoratzeak edo iruditzeak bakafik, ote diteken, iñor izatea ain lotsagabe ta gaiztoa, Elizan, Jesukristoren etxean, lizunkerien bat egiteko ausardia ta kopeta lukena. Eta begira zazu; Jaungoikoari eskeñitako eliza ori zure burua d... ta izango zifuke ausardia ta kopeta loikeriz zure burua zikintzeko?

Gizona geienik zakartzen duan eta beratzen duan gaiztakeria orixe da. Bernardo Santuak dio: «Aundinaikeriz gizonak pekatu egiten duanean, *aingeruaren antzean* pekatu egiten du, zikoizkerian erortzen danean, *gizonen antzean* pekatu egiten du; baño aragiaren gogo zikiñak bere atzetik deramatenean *abere antzean* pekatu egiten du». Abere buru-gabeen antzeko biurtu da, zion Dabid Igarle santuak.

(Urengoan azkena.)

Intzar Damaso A.

GOGO A

Beñola goizean goiz ikusi nuan
Loretzo usai gozoduna,
Eguztiaren izpi leunak afitzeko
Leunki zabaltzen ari zala.

Beraren edertasunak agertuaz
Zegoan ufinkai jario,
Baratza ta baztefak ufinkaituaz
Goizean goiztik gaberaño.

Iluntzin estaldu zanen eguzkia,
Goizeko loretzo edera
Ufinkai gabea, tente egon ezinda,
Lufa jota zegoen zimela.

Nik ere ikusi nuan zoriontsua
Beñola neronen gogoa,
Onoimenen ufinkai gozoz betea
Jesus-Iguzkiri begira.

Baño bein niri ere estaldu zitzaidan
Nere efuz Jesus-Iguzkia.
Geroztik ofa nere gogoa zimel
Zutik ere egon ezin dala.

Maruritar Eramun P. B. A.

Belaunza (Araba'ko Eliza)

Albube arkaitzaren onetan dagoan efi txikia da Belauntza. Izañako gel-tokitik kilometro bat bide dago bertara. Murgia, Barandio, Orduña ta Amurio eñietara joanera edefak dauzka. Eñia dagon gaintxotik ikuskafi atsegingafia du. Elizaz landara ez du eñiak tximist-indar ola bat beste ikus-tekorik.

Eliza XIII-gaŕen mendeko lana da. Araba ta Napañoan, zorionez, aspal-diko garai aietatik gelditzen zaizkigun ainbesteren arteko bat da au.

Ez-jakiñak, efazkeriak eta zikoizkeriak ezpalizkigu beste asko ondatu!



BELAUNZA (Araba)

Aietan otoitz egin izan zuten gure aŕfekoak, aiek ziran gure eñiaren edertasuna, aiek ziran ertilarien goragafi ta emen beren egunak egin zituztenen elizkoitasunaren adizbide biziak.

Eliza iru abelartekoa da eta eztu guruzketarik. Buru-aldea leuna du, leio bikiak (bata bestearen gain jañiak) ditu. Beste bi leio edergafi askoz jantziak eta ongi landuak argitzen dute bañena; oso ongi ematen dute.

Sabaia zain makufaz goratua du, baño korapiño berdingafi gabea; Len lenengo egintza ondoreko lanaz zakartua ikusteak ez digu onik egiten!

Ba-ditu margo-oial batzuek, ez txafak.

Ataria, naiz dotorea, ez da ango zatirik oberena.

M'ar F. A.



Ziñausleak emandako bazkari pozoitua jan aġen,
etzion gaitzik egin.



NTONIO Deuna Itali aldean zebilen bein ba-
tez ziñausleak bazkari bat eskeiñi zioten; eta
Antonio Deunak, Jesu Kristoren antzera, onar-
tu zuan. Eta ziñausle biuriak, Antonio Deuna-
ri gaitz egin nairik, janari pozoitu-eraillkoġa
eman zioten. Baño Antonio Deunak bereala
ezagutu zuan goiargiz aien gaiztakeria; eta
itz eta esan onez akaġ egin zielarik, ziñausle
gezurtiak Ebanjelioko esana: «Eta eraillkoġik
ezer edaten badute, ez die gaitzik egingo ai-
ei», oariġasteagatik egin zutela esan zioten;
janari ura jateko eta, gaitzik egiten eġpazion,

Ebanjelioko egia sinistera jaġiko zirala; eta jatera ausartzen eġpazan,
Ebanjelioko esana gezurtzat artuko zutela. Eta Antonio Deun bel-
durgeak, janariari gurutzea egin eta jan egin zuan, esanaz etzuala
jaten Jainkoa ziltzatzeko, aien gogoak bide onera ekartzeko eta
Ebanjelioko esana egiztatzeko baizik.

Eta jan ondoren, etzuan batere gaitzik izan.

Ori ikusirik, ziñausleak siniste katolikora biurtu ziran.

Otar A. O. M. C.


Antonio Santuaren bitartez eskariak ta eskeġak.

«Padua'ko Antonio deunaren bidez uste dut iritxi degula onako
mesede aundi au. Txekor (txala edo biga) bat oso gaizki ta etsia e-
manik giñeuken eta Antonio Santuari agindu nizkion 2 pezeta
Beartsuen ogitako, sendatzen bazigun. Eta gure zekoġa ederki jaġi
zaigu. Antonio Santuari eskeġak emanez nere itza betetzen dut.»

(Uġengoan jaġaituko diogu «eskari-eskeġen» sailari.)




Gurutze Sainduari



(Orok)

Oi Gu - ru - tze - a! oi Gu - ru - tze-a! Gu - ru - tze




sain-du mai-te - a! Oi Gu - ru - tze-a! oi Gu - ru - tze-a! Gu - ru - tze




(Batzuek)

Saindu mai-te - a! Zu-re be-so-tan, oi Gu-ru-tze - a! il zai-gu



Je-sus maite - a: A-ren gu-rutz-il-tzai-le gaiz-to-a ni naiz, ni



be-ka-to-re - a! ni naiz, ni be-ka-to-re - a!



—2—

Jesu Kristoren odolak zaitu
Galbarioan gofitu:
Deusek geroztik munduan ez du
Zuk bezenbat dirdiratu. (bis)

—3—

Bertzorduz emen etsai gaixtoa
Zutaz izan zen eoa:
Zure indafa da Jainkozkoa,
Deusek ezin autsizkoa. (bis)


—4—

Etsaiarekin beti guduan
Emen gabiltza munduan:
Paratzen bazaizkigu buruan,
Oi gu nork bentzu orduan! (bis)


—5—

Jesu Kristori zurekin baizen
Ez da nior jafaikitzen:
Zure bidetik da beti zuzen
Kristaua zerurat eltzen. (bis)





Ama, maitasuna Jaunak zertarako eman dizu?



ANDAREAK aziko badira, eguzkiaren argi edefa eta bero goxoa bear dituzte: ala berian umea azitzezkeroztan, ume ofek amaren maitasuna eta amari Jaunak eman dion ernetasunaren beaŕa ba du.

«Eguzkiari darizkion printzei begira zayezue; bazter guzietara zabaltzen dira ilunpea garaituaz; bere ontasuna lur bafeneraño're sartzen da iya ilik zeuden landareak piztuazitzen ditula.» (Dionisio Sant. D e Divinis Nominibus (II.)

«Eguzki... sortu da: loreak, azaldu zaitezte: basoa kezetasunez bete: zugatzak ostoz janizi ta emaitza (frutu) edefak eman: eguzkiak deitzen zaituzte: eguzkia jeiki da ta izate guziak bere deyari erantzun diote.» (Corn. Lap. Coment. in Eccli. c. XLIII.)

Izate guziak eguzkiarena bezela, umeak bere Amaren beaŕa badu ongi azitze ezkeroz.


Umeak berez amaren esana sinisten du maitasuna agertuaz gauza guziek erakusten dizkionian: ama onaren jakinduriaren neufikoa baita bere maitasuna eta ofegatik seme-alabatxoak amari guzia sinisten dio, maitasunak esanazten diola dakielako.

Umeari erakutsi ala, amak umearen biotza zuzendu dezake. Amak daukan ezagueraren printzak eta biyotzian daukan maitasunaren beroak sortuazitzen dituzte umearen biyotzian Jaunak ereñditun azi on guztien landare edefak: Jaunaren loretegia baita biyotz ori eta loretegi ofetan Jaunak jayotzetik azi onak ugari ereñi zitun.

Amak atera bear dizkio sustraitik ardura aundiarekin umearen biotzian sortu ala, belafazi txafak, berez azi txafa ere umearen biotzian sortzen da ta.

Ofela biyotz oneko amak, biyotz xamufeko, biyotz efukiduneko ama onak, Jaunak eman dion semea edo alaba Jaunari itzuli lezayoke ongi azia.

Ezta lan txikia amak ofetarako egin bear duana; bañan zetzeraz zu ofetarako, ama zerana?



(Alegi A'ren argakz.)

Artaldeak neguan

Ain gauza zaila ta eziñezkoa da zuretzat Jaunak eman dizun ume efugabea, gaiztakeriak kutsatu gabe Jaunari itzultzea, txikitatik ongi zuzentzen badezu?

Biotz ona, maitasuna Jaunak zertarako eman dizu ba?

Biotzera itz egiteko biotza bear da: umearen biyotxtua bera, xamufa izateko, amak beratasuna ta xamuftasuna bear ditu: Maitasuna zer den maitasunak daki.

Ama, maitasuna zu zera! Zure printzak semetxoaren biyotzeraño zabal-
tzeko, zure printz oyen bitartez biotz ori azitzeko Jaunak egin zaitu.

Oyartzuna.

MERKETZA

Merketza'ren ituriak.

Batzuek diote nekazaritza dala *merketzaren* ituria, beste batzuek or-
dea diruaren pilatzea edo metatzea dala diote. Jakintsuak ibili dira esaten ta
idazten, *merketza* iristeko agintariak bear dutela utzi bakoitza lotu gabe
bere lanetan, ta lagundu bakoitzari ta gañera zuzendu ta eraman bear be-
zelako bidetik bakoitzaren lana.

Merketza osoro besarkatzeko bai Nekazaritza beronen ondoreakin, bai
Industria, bai Salerosgoa edo Merkatalgoa, bai dirua ta beronen erabiltzeak
ta bai agintarien eginkizuna begiratu ta ikusi bear da; oiek guztietatik bai-
datorkigu *merketza*.

Lenbizikoz Nekazaritza'z egingo degu: ori izan bai-da euskoen aberas-
tasunik bikañena ta bereziena, len ta orain: lufak, abere edo'aziendak, etxe-
ak ta abar.

*
*
*

Euskoen aspaldiko mendetako Nekazaritza.

Euskoen lur guzia aspaldi-aspaldian zuaitzez (arbolez) betea zegoen,
ta nekazaritza oso gutxi zan; ala ere gure aitzufak edo atxufak, gure estra-
ziak ta gure ortzezko itaiak ta gure gurdi bereziak lenbiziko denboretakoa
dala gure nekazaritza agertzen digute.

Gero burnia arkitzen ta lantzen asi ziranean, erabili zituzten laiak, gol-
deak (nabafak, iruortzak, bostortzak, besabeak. txafantxak, areak ta esku-
bareak.)

Endaitz luze ta arin-dun ta burnizko edo zurezko mutur-dun goldea fe-
nizioak ta juduak ere ibiltzen omen zuten.

Ortzezko itaia aspaldikoa da ta Mafoko'n ta Abisinian ta abar ere era-
biltzen dute.

Kafasi egiten dun gure gurdia ere oso aspaldikoa da; batzuk a rioakera-
kutsi zigutela, besteak euskoak beste efiari erakutsi ziela, beste batzuk be-
fiz bakoitzak era batean ta elkar ikusi gabe asmatu zutela, esaten ta idazten
or dabiltz jakintsuak.

Gure euskera berak ere esaten digu Euskalefia beti ta bereziaz nekaza-
ritzari lotua izan dala. Urteko ilabeteak dauzkaten izenak ori agertzen di-
gute: il beltza edo gau luzea, otzaren ila, epai edo ifiausteko ila, jofatzeko
ila, ostoen ta loreen ila, garagafaren ila, gariaren ila, agor ila, garo edo
iraren ila, ufaren ila, aza ta azien garaia, aziak loak artzeko garaia.

Or ikusten dezute nekazaritzak ta batez ere landaretzak betetzen zuela gure aufekoen arazo guztia.

Nekazaritza bai beti izan bear da gure arazorik maiteena, Jainkoak ala egin gaituelako ta ori dalako gañera efi guzien aberastasunaren oñafia.

AMAIALDE.


- OSASUNA -

Leengo gai beretik, beriz ere.

Alakoik-ala, gizon edo emakume bat ¿sortzez sendakin? Gizon bat baitan, Jaungoikoaren doai berezi baten sinestea, ez da zuurtzia.

Iñor ezta ikasi gabe jakintsu. Zinez; batzuetan edo geienetan, gure iza-tearen indafa aski dugu gure gaitzetarik sendatzeko.

Edo arta gutirekin, bertze iñoren laguntzarik gabe gu geroni sendatzeko



Donostia. Ulia-mendia

Ori ala denez geroz; ¿Nork berexi, alakoetan, sendakinari edo kuran-deroari esker eri bat sendatu dela?

¿Nork daki, batak eta bertzeak, eriaeren baitako indafari traba baizik ez ote dion egin?

Ez da or arat-unatik, sendakin on baten lanbideak dira argi ikustea leenik eri dagonar en izate berexia; zergatik eri dagon, eta aren sendatzeko bideak artzeko non dituen argia eta laguntza.

Asko ikasi gabe eta asko ikusi gabe ez daiteke sendakin onik.

Gizonaren baitako gora-bera guzien befi jakitea ez da gauza eñaza; no-ela z den mundu ontako indar guzien negurtzea.

Ainbertze aldetik eta gisa guzietara elkar jotzen eta naasten diren aizeak, odeiak, lañoak: beroa leku batean, otza bertzean, ñork, indar oriek guziak bateratu, biar edo etzi zer aro daiteken jakiteko?

¿Zergatik ba, kurandero eta olakoetan, sendakintzako doai berezi eske?

Betidanik, gizonari eder zaio, laket du gauza eskutu edo misteriozkoe-tan sinestea.

Askoz geiago bai da ez dakiguna, dakiguna baño; buruz nekatu gabe, atsegin artzen dugu esaten dugunean: ofek badu zerbeit guk ez dugunetik, eta ortan geldi.

Sendakin batek, ura ona delarik, badaki gaitzen befi.

Batzuetan, eri baten gaitza bilatzeko ez duela bide argirik ikusten ere, badaki.

Badaki ere, eri batek ezin sendatuzko gaitza duela edo sendatzeko neketsu dela, luze; guziak aspertzeko eta bai artaz etsitzeko ere.

Gaizdun orietarik, askoz geiago doazi kuranderoengana, sendakin argi eta langile ez diren eskuetatik.

Ortaz landara, sendakinek ezpai dituzte eri guziak bear bezala iker-tzen eta bear bezain ondo artatzen; ori da kuranderoengana ixuri dat.

Gogoeta ondo, ez dela aski, eri dagon bati, osagai bat artuazi eta eria-ren sendatze edo obekitze ura, osagaiaren gain emateko. Aldian aldiko ar-gitasunak badira ori ala dela adiarazten dutenak.

Badaiteke bertze gisaz ere efemedio artu ta gero ondu delako, ez da aski, afengatik dela esateko; «*post hoc, ergo propter hoc.*»

Kuranderoak, sendakintza lanetan itsu-mutsuka dabilta eta gordeka asteen bedere.

Zerbeit ikusten duten artan finkaturik zutago dabilta gero, baño ez orgatik argiago.

Sendakinek aldiz, ikasiz, ikusiz eta gogoeta onik eginez argituago agertzen, bere lan guzietan.


Batzutan bere buruaz antuak edo etxetik atera gabe ufundanik nai di-tuzte gaitzak bilatu eta sendatu; efu ori kuranderoenganako bide bat.


Bertze bide bat; eriaz kontu guti eginik alde bat utziz, arta eskasa de-la edo, kuranderoengana.

Azkenik; kuranderoak beti izanzen ditugu, gure izatea ala denez geroz eta sendakintzarako egiak, esan ditudan bezala, direnez geroz.

Baño, guzien buruan; ikasiago denak, argituago denak eta langileago denak eginen du lan ona. Eta ez bertzeek.

Lareko





Izpefingi (periodiku) baten galderak.

New-York'ko izpefingi batek bere irakuflien siñismena zein dan jakiteko, galdera batzuek egin dizkie. Erantzuteko amar egun eman dizkie ta amar egun oyetan 11.000 erantzupen bialdu dizkiote. Ara batzuek:

«Jaungoikoagan siñisten al dezu?» galderari erantzun diote 7.500 esanaz «baietz» ta 2.924 «ezetz».

7.273 erantzupen bialdu zaizkio gizonen artean erlijioa beafezkoa dala esanaz; 6.399, elizarik ez dan tokian bizi nai ez luketenak; 6.327, Jaungoikoari itz egiteko otoitza edo orazioa beafezkoa dala esanaz ta 6.292, anima ilezkoña dala siñisten dutenak.

Izpefingiari erantzun diotenetatik, 3.815 aziera ona ematen die beren semeai, 3.603 ez die ematen; 8.632 aziera ona artu dute beren gurasoengandik, 1.621 ez ordea.

Ori da guzia uztea

Orain urte batzuek, miloi asko zituen Amerika'r baten alaba, protestanteak utzi ta, gure egiazko Elizara etofi zan. Aita asko asafetu zan ta alegiñak egin zituan, bere alaba protestanteen artera befiz ekaftizeko. Alpefik zebilela ikusiaz, bere azkenai edo testamentuan erabaki zuan alabarentzat izango zirala berak dolafetan zituan 12 miloi r'erdi, baño ortarako alabak katolikoak utzi bear zituan.

Alaba ezta zalantzan egon. Aitaren miloiak alde batera utzi ta monja egin da. «Nere aita, esan du berak, zeruko aita lufekoa baño aberatsagoa da ta bere saria ere askoz edefagoa izango da».

Irugañen Senidetza (orden) Pekin'en.

Egun batean, dio monja mixiolari batek, neskatx bat etofi zitzaigun konbentura, Prantzisko Deunaren alaba izan zitekean galdezka. Pekin'en jayoa zan ta bere gurasoak katolikoak. Gure bizitza ezagutu zezan, eman genion lokafi edo kordioa ta gure artera etofi zan. Gu bezela monja izateko garaia etofi zitzaionean, gaxo erori zan.

Gure etxetik atera beafak miña eman zion, baño pozlu ere bai munduan ere Prantzisko Deunaren alaba izan ditekela esan genionean. Gure neskatx onek beste sei lagun bilatu ditu ta guziak Irugañen Ordenako jantzia artu dute. Gero besteak etofi dira ta orain badira ogei neskatx, bat ezpada, beste guziak txinafak.

Txinara oso ongi iritxi dira.

Lizartza'r Andres eta Aldaba'r Gregorio A.A'k, Txina'ko misiolariak gaztigatzen digute eldu direla *Kansu'ra*.


Bidea, naiz itxasokoa, naiz Txina barnako lufekoa oso neketsua dala; baina, Jaungoikoari eskefak, iritxi dirala osasunaz ta pozez beterik ain gogo zuten, beren misio-lekura ta ufengo ilabetean befi asko bialiko dutela.

Poztutzen gera gu ere ta Jaungoikoari eskefona erakusten diogu gure misio-lariak ofela begiratu dituelako.

Misiolarien befi galdetzer a etofi zaizkigun irakurleak kezkarik izan ez dezaten.

Ilabete onen amalaugarren egunean meza bat emango da **ZERUKO ARGIA**REN irakurle ta ongilen alde, Antonio Santuaren aldarean.

ILEN SALA



Belauntzan (Gipuzkoa) il zan, aurfeko Ilbeltzaren 12'an, ogetamaika urtetan, eriotze on-on batez **Agustin Iturriotz Añeseigor** kristau zintzoa, gure irarkola onetako langile-nagusi dan, Leaburu'tar Jose Eñamon A'ren. anaia. Oso gaztetan eraman du Jainkoak Zerura. Iaioa, on-ona, lufeko gaiztotasunak bat ere kutsatu gabea zan, gaurko egunean gutxitan oi dan bezela. Gurasoenganako maitasunean ta begiramentuan gure gazteentzat eredu

ta erakusmen edera. Igandero, igandero, batean ere utsik egin gabe, joan oi zan aita-amaren ondora, gurasoen esan onak entzutera ta ikastera, aien neufira ta erara bizitzeko beti. Lagun ta adiskideentzat ere biotz on-onekoa ta oso maitagarria. Gaxo zegoala, lagunak etortzen zitzaizkion ikustera ta ezaguturik etzegoela zuzenbiderik (efemediorik) ta iltzera zijoala, negafari ematen zioten samintasunaz. ¡Ain biotzez maite zuten! Jainkoak ordea beragana eramatea naiago izan zuan, emen lufean baño zeruan askoz obe arkituko zelako ta ofela il zan santu bat il daiteken bezela. Bere emazte *Martina Lopetegi* gaxoa bi seme-alabatxoe kin utzi du. Bere guraso, *Jose Maria ta Zeferina* jaun-andreai, bere emazte naigabetuari, bere anai-añebai, ta gañerako aideai atsekabea eramaten la guntzen diegu guk ere biotz-biotzez.

Zestona'n (Gipuzkoa) il da Tomas Zunzunegi ta Berasategi apaizgaia, gure arpideduna. Bere ama, Bizenta andreari ta anai-añebai, batez ere Eustasio J'ri. gure atsekabea erakusten diegu.

Goritin (Napafoan) Fuljenzia San Juan, ogeitalau urteko neskatxa, gaxotasun luze baten ondorean.

G. B.